

Dotrinan ikasitakoaz gain “Elizatik kanpo salbamenik ez...”

En la historia de la teología cristiana no han faltado verdades o dogmas que atañen, decisivamente, al futuro personal y eclesial de cada bautizado. Además, en ocasiones tales afirmaciones han dado lugar a apasionados debates y reflexiones doctrinales, vivos e intrincados. Uno de esos dogmas ha sido el axioma que afirmaba que “fuera de la Iglesia no hay salvación” (extra Ecclesiam nula salus). Establecida esta afirmación de esa forma tan escueta y, aparentemente, tan excluyente, los teólogos han tenido que repensar el sentido y alcance de la misma.

Sarrienik erlijioek, adiera batean nahiz bestean, “salbamen-erlijioak” izan nahi dute, hau da, gizakia hil ondoren ere azken izaera/egoera on eta iraunkor batera eraman nahi dutenak. Azken egoera hori gizabanako bakoitzaren zerbait pertsonala izango da erlijio batzuentzat (hala nola kristautasunean edo Islamean), eta zenbaitek azken salbamena Ezezagun edo Azken Errealitate Handiaren baitan ikusiko du (Ekialdeko Erlijioak).

Hiru erlijioetako salbamena

Hilondoko bizitzaren ustea edo egia Judaismo, Kristautasun eta Islamean, hiruretan, antzeko sinesgaia da, bizitza hori gizabanako bakoitzaren bizi-iraupen pertsonala dela sinesten baitute hirurek.

Sinesgai hori Kristautasunari eta Islamari juduek lortutako sinesmenetik datorkie, noski. Hala ere, esan beharra dago gizakiaren hilezkortasunaren Testamentu Zaharreko ideia ez zela mamitu Israelgo herriaren Kristo aurreko azken belau-nak arte.

Jazarpen eta pertsegizio latzen artean, heriotzaraino torturatua izan zirenen sinesmena da hor ageri zaiguna. Hiltzeaz zegoela, makabearretako laugarren senideak zera esan zion Antioko Erregeari: “Merezi du giza eskuz hiltzeak, Jainkoak berbizteko itxaropena ematen digune-

an. Zuk, orde, ez duzu bizirako berbizterik izango?” (2 M 7, 14).

Makabearren liburu berean agertu ziren, horren sinesgai berri osagarriak ere: martiriak gerorako merituz beterik hiltzen dira, santuen bitartekaritzak gure bizitzan badu lekurik, bidezkoa da hildakoen aldeko otoitza, Jainkoa baita hilondoa epaituko gaituena. Hori izan zen juduen sinesmena.

Ondoren, saiatu da kristautasuna ere heriotza-ondoko bizitzari buruz bere dotrina ematen. Oro har, bere lerro nagusietan kristau ikasbidean eman zitzaigun horren berri, hau da, gizakiaren heriotza ondoko gerorengoak azaltzean. Kristauek eta islamiarrek berpizkundean sinesten dute, eta azken judizio ondoko zigor-sarrietan. Norberaren salbamena, beraz, orain hemendik hasita une hartarako nola segurtatu da guztion arazoa.

Horra, bada, goian aipatu dugun esaera teologikoaren garrantzia: Elizatik kanpo ez al dago salbamenik?

Dogma eta bere azalpenak

Esaera sonatu hori (*extra Ecclesiam nula salus*) ez da ageri horrela Testamentu Berrian; baina salbamenaren eta salbatzailearen ideiak oso errepikatuta daude Biblian. Nazaretako Jesusi eman zitzaion izenak berak, *Jesus*, “Jainkoak salbatzen du” esan nahi baitu, eta *Kristok* (=Mesias) berak ere



‘salbatzaile izateko olioztatua’ ematen digu aditzera. Egiaz, Ebanjelioetan eta Testamentu Berrian barrena etengabe esango zaigu Jesus salbatzailea dela, Ebangelioetan bezala Epistoletan.

Eta horra galdera: Zeintzuk izango lirатеke salbamera lortzeko baldintzak? Eta horretarako urezko bataioa eta Elizako kide izatea erabat beharrezkoak balira, nola sinets dezakegu Jainkoak gizakiarekiko duen salbazio-gogo orokorra? Egiaz nola ulertu behar da Elizatik kanpo salbamenik ez dagoelako hori?

Esaera San Zipriano-ri zor zaio (c. 200-258), eta beronen gutun ezagun batetik jaso zuen ondoko teologia kristauak. Esaldia, gutxi-asko, beti gogoan izan du kristau teologiak, eta historiako une jakin batzuetan are gehiago saiatu da Elizaren indar salbagarria azpimarratzen, bereziki Erakundearen boterea indartzeko, eta krisi-uneetan larrialdiari gaina hartzeko; halatsu gertatu zen Erdi Aroan, eta modu bertsuan Aro Garai-kidean.

Erdi Aroan, Aita Santuaren botereen aldeko goraldirik garaienean azaldu ziren Elizaren salbamen-bitartekotasuna indar betean aldarrikatu zuten eliz agiriak, Inozentzio III.aren (1208) eta Bonifazio VIII.aren (1302) idazkietan; giro berean hitz egin zuen Elizaren nahitanahiezko bitartekotasun horretaz IV. Kontzilio Laterandarrak (1215). Zerbait geroago, Ekialdeko Elizak berriro Erromara lotu nahi izan zirenean gogorarazi zen salbamenerako Eliza bakarraren beharrezkotasun hori, Florentziako Kontzilioan (1442). Baina teologoak berehala hasi ziren ezinbesteko salbamen-baldintza horri beren oharrak eta nabardurak ematen, Sto. Tomas Erdi Aroan bezala XVI. mendean Suárez ere.

Ondorengo mendeetan dogma-esaera hori

–bere azalpen modu zurrin horrekin– erabat begi-bistatik desagertu ez bazen ere, ez zen, hala ere, indar berarekin erabili, harik eta Iraultza Frantsesaren ondoren eta *Risorgimento* italiarrekin bateratsu, Eliza krisi politiko-ideologiko handi baten aurrean aurkitu zen arte: Pio IX.a baliatu zen dogma horretaz, berori indarberrituz (1854, 1863).

XX. mendean bihurtu hertsu baten aurrean aurkitu zen esaldia, Vatikanoko II.ak (lehenengo aldiz Kontzilio batek) erlijio ez-kristauen giza balio erlijiosoak garbiki azpimarratu zituen. Horren aurretik ere, “Elizatik kanpo salbamenik ez” dioen baieztapenak azalpen argigarri asko izan ditu, berori gizakiarekiko Jainkoaren salbamen-borondate orokorraren dogmarekin nola elkar daitekeen argitu nahita.

Orain, esan izan den bezala, beste erlijioetako “kristau anonimo” deitu ohi zirenen banakako salbamera ez ezik beste erlijioen salbamen-balioa gogoan hartu nahi da. Salbamen bideragarri hori kristau teologiatik (eta erlijioarteko salbamen teologiatik ere) hobeki ulertzeko argibide nabartuak ematen dira, Mendebaldeko eta Hirugarren Munduko “aniztasun erlijiosoaren teologia” deituan.

Amaitu aurretik gogora dezadan garai bateko Misionologia kristaua berriro handia ezagutzen ari dela bere zeregina erlijioen eta bateko eta besteko sinestun guztien elkarrizketa gisara ulertzean, hots, fede ezberdinen arteko “hartu-emanztat” ulertzean.

Eremu honetan, teologiak bidea du oraindik egiteko, eta edozein modutan ere, azken buruan, Jainkoaren salbamen-borondatearen eta baliabideen misterioa dago arazo guztiaren atzean.

Joseba Intxausti